

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

## 6311

*274/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, Osasun Arloko Mahai Sektorialak 2011ko uztailaren 12ko bileran lortutako akordioa onartzen duena, ospitaleko larrialdi-zerbitzuetako osasun-langileen eta Emergentziak erakundeko zerbitzu-antolakuntzako langileen lan-baldintzei buruzkoa.*

Lehen mailako arretaren barruan asteburu eta jaiegunei dagokienez egindako aldaketaren eta Etengabeko Arreta Guneetako langileen lan-baldintzak arautzeko Osasun Arloko Mahai Sektorialean lortutako akordioaren harira, ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako osasun-langileen zein Emergentziak erakundean aritzen direnen lanaren ezaugarri bereziak landu dira.

Alde batetik, beharrezkotzat jo da ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetako osasun-langileek larunbatetan egiten duten lanari tratamendu espezifiko ematea.

Bestetik, beharrezkotzat jo da Emergentziak erakundeko langileei ordainsari osagarri bat ematea ere, kontuan izanik larunbatetan ematen dituzten zerbitzuek ezaugarri bereziak dituztela eta jarduerak gora egin duela 2010ean lehen mailako arretako zerbitzuan eta Etengabeko Arreta Guneetan asteburuetarako berrantolaketa egin ondoren.

Osakidetza erakunde publikoaren ordezkariak eta UGT zentral sindikalak sinatu dute akordioa.

Aintzat harturik Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 2007ko apirilaren 12ko 7/2007 Legean jasotzen diren aurreikuspenak, negoziazio kolektiboari, ordezkapenari eta parte-hartzeari buruzkoak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 1997ko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28.9 artikuluan jasotzen direnak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra onartzeko 2010eko abenduaren 23ko 5/2010 Legearen 29. artikuluan jasotzen direnak, aurrehitzarmenaren balioa eta eraginkortasuna Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu behar du, formalki eta espresuki.

Hori guztia kontuan izanik, Osasuneko sailburuak hala proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko abenduaren 20ko bileran aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Osasun Arloko Mahai Sektorialak 2011ko uztailaren 12an lortutako akordioa onartzea (dekretu honi gehitu zaio, eranskin gisa).

2. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 20an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER RAFAEL BENGEOA RENTERÍA.

## ERANSKINA, ABENDUAREN 20KO 274/2001 DEKRETUARENA

OSASUN ARLOKO MAHAI SEKTORIALAK 2011KO UZTAILAREN 12KO BILERAN  
LORTUTAKO AKORDIOA

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 12an, eta Osasun Arloko Mahai Sektoriala bildurik, alde batetik Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko ordezkariak eta bestetik UGT sindikatuko ordezkariak, akordio hau izenpetzen dute

## HITZAURREA

Ospitaleetako Larrialdietako Zerbitzuen misioa da herritarrei atentzio sanitario urgentea ematea, denbora egokian, giza eta teknika baliabide egokiak eta Larrialdietako Espainiako Elkarteak estandarrak eskatzen dituen kalitate teknikoaren arabera. Eta hori guztia pazientearen beharrik asetzeko.

Bestalde, Emergentsietako Zerbitzua Osakidetzako erakundea da, larrialdiak eta emergentsietako asistentzia sanitarioa koordinatzen dituena Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan.

Zerbitzu horietan lan egiten duten profesionalen taldeak urteko egun guztietan 24 orduetan ematen du asistentzia, txandaka lan eginez.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 27.3 artikuluan ezartzen da eguneko lanaldi normala 7 ordukoa izango dela guztientzat, txandaka lan egiten dutenentzat izan ezik, eta Lehen Mailako Atentzioan larunbatetan lan egiteari buruz aplikatu daitezkeen erregimenekoak salbu.

Bestalde, 28.3 artikulua ezartzen du guardiako fakultatibo espezialistaren ohiko lanaldia zazpi ordukoa dela asteleheneetik ostiralera.

Fakultatiboan lan-erregimena ezberdina den arren Ospitaleetako Larrialdietako Zerbitzuetan eta Emergentsietakoetan guardiak egiten dituzten fakultatibo espezialistenarekin alderatuta, Espainiako Estatuko Justizia Epaitegietan bada nahiko jurisprudentzia, ospitaleetako larrialdietako medikuen, eta bide batez emergentsietako mediku espezialisten lan-baldintzetan aldaketa bat dagoela aitortzen duena, asteleheneetik ostiralera bitarteko eguneko 7 orduko ohiko lanaldiari dagokionez.

Bestalde, agerian dago Emergentsietako Zerbitzuak jardura gehiago egiten duela Lehen Mailako Atentzioko Zerbitzuak eta Etengabeko Atentzio Guneak 2010ean asteburutan berrantolatuta zirenetik.

Halaber, Emergentsietako langileek bestelako ordainketa-egitura bat dute osagarriari dagokienez. Ez dute jasotzen Ospitalizazioko osagarria ospitaleetan lan egiten duten fakultatiboek ez bezala, edota Sakabanatze Geografikoko Osagarria Lehen Mailako Atentzioan lan egiten duten langileek ez bezala.

Talde horien erregimeneko baldintza espezifikoei behar bezalako tratamendua emateko, Akordio hau onartu da –gero transkribatuko dena–, gaurko egunean onartutako Etengabeko Atentzio Guneetako (EAG) profesionalen lan-baldintzei buruzko Akordioa erreferentziatzat hartuta.

Txandakako erregimenean lan egiten duten langile hauen lanaldia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioan ezarritakoarekin bat datorrenez,

Etengabeko Atentzioko Guneetako (EAG) langileen baldintzen gaineko akordioaren translaziorako osagarri bat ezartzen da, hau da, osagarri horrekin larunbatetan 08:00ak eta 22:00ak bitartean egindako lana ordaintzen da.

Horiek horrela, hurrengo akordioa onartzen da

### AKORDIOA

1.– Larrialdiengatiko eta emergentziengatiko berariazko osagarri bat ezartzen da. Osagarri horrekin Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun zerbitzuen erakundeetako Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuetako fakultatiboek eta Emergenzietako zerbitzu-erakundeko langileek, ohiko lanaldi moduan, larunbatetan 08:00ak eta 22:00ak bitartean egindako lana ordainduko da.

2.– Osagarri horrek zenbateko hauek izango ditu, larunbateko 08:00ak eta 22:00ak bitartean egindako ordu bakoitzeko:

- Medikuek: 10,60 euroak
- Erizaintzako pertsonalak: 8,50 euroak
- Gidariak/Teknikari Espezialistak/Administrari Laguntzaileak: 6,70 euroak
- Zeladoreak: 6,20 euroak

3.– Larrialdiengatiko berariazko osagarria nekagarritasunagatiko berariazko osagarriaren kontzeptuan integratuko da Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuetako fakultatiboen kasuan, eta kontzeptu horretan ordainduko da ospitalizazioko berariazko osagarriarekin batera.

4.– Neurri horiek atzeraeraginezko ondorioak izango dituzte 2010eko ekainaren 19tik aurrera.

2011ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean ezarritakoarekin bat (abenduaren 23ko 5/2010 Legea), bere baliotasun eta ondorio osorako, Akordio hau Gobernu Kontseiluak onartu behar du, aldez aurretik Ekonomia eta Ogasun eta Justizia eta Herri Administrazioa Sailek txostena emanda.

Eta adostasunaren berri emateko aldeek sinatzen dute goian aipatutako datan.

Osakidetzaren izenean:

Giza Baliabideetako zuzendaria,  
TOMÁS MENDOZA CARNICERO.

Sindikatuaren izenean:

Osasun Arloko idazkaria FSP/UGT Euskadi,  
ARANTZA AGOTE ZABALLA.

Lehen Mailako Atentzioko arduraduna UGT/Osasun Arloa,  
ANTONIO GARCÍA GONZÁLEZ.